➢ Pentsatu eta erantzun.

- Zenbat zatiketa desberdin egin ditzakezu?
- Zatiketarik egin gabe, esan zer zatiketak duen zatidurarik handiena.
- Zatiketarik egin gabe, esan zer zatiketak duen zatidurarik txikiena.

➢ Irakurri eta ebatzi.

- Fabrika bateko ontziratzeko 8 makinek botila kopuru bera bete dute. Guztira 872 botila bete dituzte makina guztien artean. Zenbat botila bete ditu makina bakoitzak?

Eragiketak	Erantzuna	Unitateak

- Maiderrek 6.030 € zituen aurreztuta. Diruaren erdia moto bat erosteko erabili du. Zenbat ordaindu du motoa?

Eragiketak	Erantzuna	Unitateak

- Enpresa batek 9.024 mezu elektroniko jaso ditu. Mezu horien heren bat beste herrialde batzuetatik bidali dituzte. Zenbat mezu jaso ditu enpresak beste herrialde batzuetatik?

Eragiketak	Erantzuna	Unitateak

- Ibonek 364 arrosa gorri eta 424 krabelin ditu. 6 arrosako edo 6 krabelineko sortak egin ditu. Arrosa gorrien zenbat sorta egin ditu? Eta krabelinen zenbat sorta?

	Eragiketak	Erantzuna	Unitateak
Arrosa			
Krabelin			

Zenbat lore geratu zaizkio sobera?

	Erantzuna
Arrosa	
Krabelin	